

KONFIIDENTZIALTASUNAREN- GAKOAK

1

ALDERDI JURIDIKOAK/LEGALAK:

Oinarrizko eskubidea pertsonen duintasuna, intimitatea, pribatutasuna eta askatasuna babesteko, konfidentziasunaren, eta informazioaren eta datuen erabileraren inguruan.



2

ALDERDI DEONTOLOGIKOAK:

Konpromiso etikoa eta betebeharrak profesionala bikaintasunezko arreta emateko.



3

ALDERDI ETIKOAK:

Babestea giza eskubideak eta bioetikaren eremutik konfiantzazko harreman klinikoan oinarritutako arreta humanizatu eskaintzeari dagokion guztia.



5

ALDERDI KLINIKOAK: ERANTZUKIZUN PROFESIONAL GISA ZAITZEKO GOMENDIOAK



• Giza eskubideak:

Giza Eskubideen babesa zaintzea, eta duintasuna funtsezko balio gisa aitortzen du.



• Harreman klinikoa:

Harreman klinikoa ezartzea, errespetuan, konfiantzan, benetakotasunean, enpatian eta sekretu profesionalen oinarritutakoa.



• Komunikazioa eta informazioa:

Onartzea pertsonen beren osasun-datuen babesaren titular gisa informatuak izateko duten eskubidea, eta laguntza-prozesu osoan pribatutasuna bermatzea eta nahi ez diren esposizioak saihestea.



• Historia klinikoa:

Zaintza eta prozedura guztiak objektibotasunez eta zehaztasunez erregistratu behar dira. Legeak aurreikusitako kasuetan baino ez da zilegi erregistro horretan sartzea, hala nola zuzeneko harreman kliniko batean edo baimendutako ikerketa batean. Erizaina izateak ez du legitimatzen harreman profesionalik ez duten pertsonen osasunari buruzko informazioa jakitea. Era berean, pasahitz pertsonalak behar bezala erabili behar dira, eta beharrezkoa da pasahitzak aldizka berritzea eta saiok ixtea hirugarrenei sartzea saihesteko.



• Gailu digitalak:

Erabili beti gailu eguneratuak eta ziurtatuak (CE marka eta osasun-produktua). Soilik konektatu erakundeak edo IKT zerbitzuak baimendutako gailuak, edo zibersegurtasun-neurriak betetzen dituztenak. Ez erabili gailu pertsonalik: arrisku handia dakarte datuetarako/informaziorako.

4

URRATZEAREN ONDORIO:

JURIDIKOAK/DIZIPLINAZKOAK:

Espetxe-zigorak, isunak, kaleratzea, desgaitasun profesionala, kalte-galerengatik kalte-ordainak.



DEONTOLOGIKOAK:

Diziplina-espedientea irekitzea, zehapen deontologikoa lanbide-desgaitzarekin, lanbidearen irudiari kalte egitea.



ETIKOAK:

Ekintza maltzurra, bidegabekia edo pazientearen autonomiaren aurkakoa da, eta haren duintasuna urratzen du, harreman klinikoak kaltetzen du eta osasun-lanbidean duen konfiantza galarazten du.



• Arreta telematikoa:

Ziurtatzea identifikazio argia, bai artatutako pertsonarena, bai profesionalarena.



• Organoak ematea:

Emailaren konfidentziasuna zaintzea eta saihestea edozein hertsapen edo balio-judizio.



• Ikerketa:

Parte-hartzaileen baimena beti lortzea. Erabili datu pseudonimizatuak edo anonimizatuak, dagokionaren arabera.



• Ikasleak:

Eragozpenak minimizatzea ikasleek egiten dituzten zainketetan eta teknikekin, datuen konfidentziasuna, artatutako pertsonaren intimitatea eta sekretu profesionalarekiko errespetua bermatuz.



• Sare sozialak:

Datuak edo irudiak partekatu ahal izango dira soilik interes kliniko edo akademikoa dutenean, betiere artatutako pertsonaren baimen esplizituarekin.



• Osasun publikoa:

Errespetatzea informazioaren konfidentziasuna zaintza epidemiologikoan, eta komunitateko gaixotasunen identifikazioan eta jakinarazpenean.



Consejo General de Colegios Oficiales
de Enfermería de España

COMISIÓN DEONTOLÓGICA NACIONAL